

4. DIRU-ITURRIAK

Gure enpresaren sorrerarako lehen gastuak ordaintzeko zenbait diru-sarrera izan beharko ditugu. Alde batetik, bazkideok jarritako kapital soziala. Gure enpresan 4 partaide gara eta bakoitzak 800€ aportatuz, 3200€ izango genituzke aplikazioa egiteko eta beste gastuentzako. Bestalde, [Tolosaldea Garatzen](#) agentziarekin harremanetan jarriko gara publiztaterako eta bestelako gastuetarako dirulaguntzak jasotzeko.



Gure diru-sarrera nagusia bezeroek ordainduko digutena izango da. Bi multzotan sailkatzen dira gure bezeroak: lan bila dauden gazteak eta enpresak. Azkeneko hauek gure enpresak publizitatea egiteagatik eta langileak aurkitzeko ordainduko dute (partikularrek ere zerbait ordaindu beharko dute langileak lortzeko).



Enpresek egin beharko duten ordainketa bakarreko diru-sarrera eta enpresarekin adostuko dena epe baterako izango da. Lan bila dauden bezeroek, berriz, ez dute ordaindu beharko gure app-an erregistratzeagatik. Hala ere, aukera izango dute aplikazioaren premium aukera izateko, ordainduz gero. Premium aukera app-a publiztaterik gabe erabiltzean datza. Eta hau hilabeteetan behin ordainduko dute, hau da, ordainketa errepikaria izango da.

Horretaz gain, laguntzen diegun enpresen iragarkiez gain, gure diru-sarreraren zati bat beste saltoki, aplikazio eta abarretatik etorriko da.